

Diploma banaketa ingeniari eta doktoreei Arrasateko ingeniartzako campusean

2009/04/29

Apirilaren 24an Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak 2008 promozioako 201 ikasleei diploma banatu zien. Ekitaldiari unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Zuzendariak, Vicente Atxak eman zion hasiera eta losu Zabala Errektoreak itxi zuen.

Ekitaldian Miguel Sáenz de Viguera-en, Innobasque-ko Zuzendaritza Orokorraren aholkularia, hitzaldia entzun ahal izan zen: "2007 PMI Distinguished Contribution Award".

Honako titulazio hauetan banatu ziren diplomak:

DOKTORETZA PROGRAMA:

- AUTOMATIKA ETA ELEKTRONIKA
- PORTAERA MEKANIKOA ETA MATERIALAK
- ERAGIKETEN ZUZENDARITZA ETA BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA
- INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK

Doktore titulua jaso zutenetatik bostek "Europar Doktore" aipamena jaso zuten.

INGENIARITZA

- AUTOMATIKA ETA ELEKTRONIKA INDUSTRIALEAN
- INDUSTRIALA
- TELEKOMUNIKAZIOTAN
- INFORMATIKAN
- ANTOLAKUNTZA INDUSTRIALEAN

Tituluaren lorpenerako, ikasleek Karrera Amaierako Proiektu bat egin dute nazioko enpresa batean edota atzerriko enpresa batean.

Ikasle guztiek euren prestakuntza euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez jaso dute, eta MENDEBERRIko metodologia aktiboen bidez jaso dute euren prestakuntza.

Azpimarratzekoa da, ikasle hauen lan munduratzea, ikasketak bukatu eta hiru hilabetetara %98 lanean baitago.

